

Conciertos nº 2506-2509. kontzertuak



EUSKADIKO  
ORKESTRA

**2011-2012**

Euskadiko Orkestra Sinfonikoa  
Orquesta Sinfónica de Euskadi

Bilbao  
**Donostia-San Sebastián**  
Vitoria-Gasteiz  
Pamplona/Iruña

**7-13** Urriak  
octubre  
**20:00 h.**





EUSKADIKO  
ORKESTRA

Euskadiko  
Orkestra Sinfonikoa  
Andrés Orozco-Estrada,  
zuzendari titularra

Suscribete al boletín  
digital Euskor en

[www.euskadikoorkestra.es](http://www.euskadikoorkestra.es)

webgunean izena eman  
Euskor boletín digitalean

## Gaurko kontzertua El concierto de hoy

**Munduko bideak.** *Cantus Arcticus* "txori eta orkestrarako kontzertuak", Rautavaara finlandiarrarenak, baliabide modernoekin (txorien kantuen grabazioak daude gehituta, Zirkulu Polar Artikoan eta Liminka zingiretan bildutakoak) berreskuratzen du Sibelius maisuaren hainbat eta hainbat partituran adore emandako kutsu panteista. Haydnen klazisismo zorrotza eta arakatutako klazisismo distiratsuenean Mozartengandik jaso eta arakatutako klazisismo berria halako zakartasuna sumatzen zaion paisaian elkartzen dira azkenean: *Mandarin miragarria*-n, bere azkeneko obra eszenikoan *Bizarurdinen gaztelua* eta *Zurezko printzea* eta gero, soinuazko zurrunbilo trinko eta basatia landu du Bartokék, erritmo sutu eta etengabeaz betea, ezohiko garraztasuna darion argumentua garatzeko, krimena eta lohikeria nagusi direnekoa.

**Los caminos del mundo.** *Cantus Arcticus*, "concierto para pájaros y orquesta" del finlandés Rautavaara, recupera con medios modernos (se incorporan grabaciones de cantos de pájaros recogidas en el Círculo Polar Ártico y los pantanos de Liminka) el espíritu panteísta que alentaba en tantas páginas magistrales de Sibelius. El clasicismo estricto de Haydn y el nuevo clasicismo de estirpe mozartiana explorado por Ravel en su concierto más luminoso desembocan en un paisaje de singular aspereza: en *El mandarín maravilloso*, su última obra escénica tras *El castillo de Barbazul* y *El príncipe de madera*, Bartok elabora un denso y salvaje torbellino sonoro de vehemencia rítmica imparable para desarrollar un argumento de insólita crudeza en el que el crimen y la lujuria reinan.



## I. Einojuhani Rautavaara (1928-)

Cantus Arcticus, Concerto for Birds and Orchestra [18']\*

- I. Suo (Zingira / La Ciénaga)
- II. Melankolia (Malenkonia / Melancolía)
- III. Joutsenet Muuttavat (Zisneak migratzen / Cisnes migrando)

## Maurice Ravel (1875-1937)

Concierto para piano y orquesta en sol mayor [20']

- I. Allegremente
- II. Adagio assai
- III. Presto

## II. Joseph Haydn (1732-1809)

Sinfonía nº67 en fa mayor, Hob 1:67 [25']\*

- I. Presto
- II. Adagio
- III. Menuetto
- IV. Finale: Allegro di molto

## Bela Bartok (1881-1945)

El mandarín maravilloso, opus 19. Suite [20']

\*Lehen aldiz interpretaturiko obra / Obra interpretada por primera vez

Lorenz Nasturica-Herschcowici, kontzertinoa / concertino

Andrey Boreyko, zuzendaria / director

Alice Sara Ott, pianoa / piano

Euskadiko Orkestra  
Orquesta de Euskadi

Babeslea / Patrocina:





I

## Cantus Arcticus, Concerto for Birds and Orchestra

**Einojuhani Rautavaara** / Helsinki, 9 de octubre de 1928

Englund (1916-99) eta Kokkonen (1921-96) neoklasikoen belaunaldiaren eta Meriläinen (1930-2004), Sallinen (1935) eta Heininen (1938) konpositoreak kide izandako talde heterogeneoaren erdibidean, Rautavaara finlandiarrak berezkoa duen musika sortzen jakin izan du: 50eko eta 60ko urteetako bere aurrenetako obretan landu izan zuen atonalitatetik abiatuz joera tradizionalagoei jarraitu izan die, neorromantikoak barne, gehien ezagutzera eman izan diren bere partituretako batzuei darien halako mistizismoa tartean dela. Rautavaararen ospea, 1994az geroztik bere 7. *Sinfonia* “*Angel of Light*”-ek izan zuen arrakastarekin –*Angels and Visitations* (1977) eta *Angel of Dusk* (1980) ere barne hartzen dituen gai aingerutarrei lotutako ziklokoa– urte batzuk lehenago nabarmen iritsi zen harago *Cantus Arcticus* obrarekin, txori eta orkestrarako kontzertu berezia: Ouluko Unibertsitatearen eskariz 1972an konposatua, Zirkulu Polarreko eskualdeetako txorien kantuen grabazioak biltzen ditu, baita Liminkako iparraldeko zingiretakoena ere.

*Cantus Arcticus* hiru mugimendutan dago egituratuta. *Zingira* flauta-duo arin eta uhinmugimenduko batekin hasten da eta elkarren segidan gehitzen doaz gainerako zur-instrumentuak. Azkenean, hariiek melodia zabal bati ematen diote hasiera, “lurralde bakarti batetik alderrai dabilen gizon baten barne ahotsa” simbolizatzen duenari. *Malenkonía*-n, mugimendu labur eta barean, hegatxabalaren txorrotzioaren

A caballo entre la generación de los neoclásicos Englund (1916-99) y Kokkonen (1921-96) y el grupo heterogéneo que engloba a Meriläinen (1930-2004), Sallinen (1935) y Heininen (1938), el finlandés Rautavaara ha sabido crear un lenguaje reconocible que, partiendo de la atonalidad practicada en sus primeras obras de los años 50 y 60, ha derivado hacia posiciones más tradicionales, incluso diríase neorrománticas, habitadas por ese peculiar misticismo que impregna algunas de sus partituras más divulgadas. La popularidad de Rautavaara, fortalecida desde 1994 con el éxito de su *Sinfonia nº 7* “*Angel of Light*” –perteneciente a un ciclo de temática angélica que engloba también *Angels and Visitations* (1977) y *Angel of Dusk* (1980)– alcanzaría años antes uno de sus mayores logros con *Cantus Arcticus*, singular concierto para pájaros y orquesta compuesto en 1972 por encargo de la Universidad de Oulu que incorpora grabaciones de cantos de pájaros de las regiones del Círculo Polar y de las ciénagas del norte de Liminka.

*Cantus Arcticus* se articula en tres movimientos. *La ciénaga* se inicia con un fluido y ondulante dúo de flautas al que se agregan sucesivamente las otras maderas. Al final, las cuerdas inician una amplia melodía que simboliza “la voz interior de un hombre que yerra por un paisaje desierto”. En *Melancolía*, movimiento breve y calmo, se escucha la grabación del gorjeo de la alondra manipulada hacia un registro más gra-

grabazioa entzuten dugu, erregistro baxuagorantz manipulatu. *Zisneak migratzen* da obrari azkena ematen diona *crescendo* luze batean eta bertan hegazti horien ahotsak etengabe goratzen dira gero urrunean galtzeko.

ve. *Cisnes migrando* concluye la obra en forma de largo *crescendo* en el que las voces de las aves aumentan sin cesar para luego desaparecer en la distancia.

## Concierto para piano y orquesta en sol mayor

**Maurice Ravel** / Ziburu, 7 de marzo de 1875 – París, 28 de diciembre de 1937

*Kontzertua ezkerreko eskurako*-an sonoritate garratzak, doinu goibelak eta jazz efektu nabarmen batzuk nagusi diren bitartean, *Kontzertua sol maiorrean*, Roland-Manuelek zioen bezala, hauxe da, “bertutetsu baten dibertsioa, distira, argitasuna eta arintasuna darizkiona, ñabardura zoliekin”. Ravelek, *Divertimento* izena eman nahi izan zionak, Mozarten eta Saint-Saënsen estilo klasiko puruena erakutsiz sortu zuen, ipar Euskal Herriko folklorea inspiratutako piano eta orkestrarako *Zaspiak-bat* (*Zazpi probintziak*) obra izanik bere aitzindari urruna –haren lagun Gustave Samazeuilhek gogoan zuenek, obraren oso zertzelada aurreratuak behatu izan zituen 1911n–.

Ravelek kontzertura moldatutako obra batekin erakutsi nahi zuen bere burua, zati solista konpositoreak berak jo ahal izango zuena. Ordea, nahiko ahul zegoen osasunez eta hartarako behar zen bertuosismoak amore ematera eraman zuen. Hala, obraren estreinaldirako Margherite Longengana jo zuen: Ravelek aspalditik ezagutzen zuen bera, gerra amaitzean *Le Tombeau de Couperin* ezagutzera eman zuenetik. 1929. urtearen amaiera eta 1931 urte bitartean sortua, eta hari eskainia, *Kontzertua sol maiorrean* Parisko Sala Pleyel-en estreinatu zen 1932ko urtarrilaren 14an, autorearen zuzendaritzapean.

Lehenengo mugimenduko (*Allegramente*) erritmo kezkarriek azaltzen digute hasiera batean *Divertimento* izena eman izanaren arrazoia. Tartean sumatzen den ozartasuna eta gai jakin batzuen jazz ukitu laburrak Gershwinen oihartzun dira, kontuan izanik Ravelek urte batzuk lehenago ezagutu zuela konpositorea eta haren *Kontzertua fan* Parisen interpretatu zela

Si en el *Concierto para la mano izquierda* dominan las sonoridades abruptas, los tonos oscuros y unos acusados efectos jazzísticos, el *Concierto en sol mayor* es, como apuntó Roland-Manuel, “una diversión de virtuoso, brillante, clara y ligera, de relieves agudos”. Ravel, que tuvo intención de titularlo *Divertimento*, lo concibió al más puro estilo clásico de Mozart y Saint-Saëns con un precedente remoto en la proyectada *Zaspiak-bat* (*Las siete provincias*), obra para piano y orquesta influenciada por el folclore vasco-francés, de la que su amigo Gustave Samazeuilh recordaba haber contemplado unos bocetos muy avanzados en 1911.

Ravel deseaba exhibirse con una obra concertante en la que pudiera ejecutar la parte solista. Pero su precario estado físico y el virtuosismo requerido le hicieron desistir y encomendar su estreno a Margherite Long, a la que Ravel conocía desde hacía tiempo pues dio a conocer *Le Tombeau de Couperin* al acabar la guerra. Concebido entre finales de 1929 y 1931 y dedicado a ella, el *Concierto en sol mayor* se estrenó en la Sala Pleyel de París el 14 de enero de 1932 bajo la dirección de su autor.

Los inquietos ritmos del primer movimiento (*Allegramente*) explican la denominación inicial de *Divertimento*. El desenfado ocasional y el leve toque jazzístico de ciertos temas reflejan ecos de Gershwin, a quien Ravel conoció años antes y cuyo *Concierto en fa* fue interpretado en París en 1928. Difícilmente podría esperarse, tras semejante explosión de vitalidad, un movimiento más contrastado que el *Adagio assai* central. Una página cuya dulzura, refi-



1928an. Nekez espero zitekeen, hainbesteko bizitasun eztagaren ondoren, erdiko *Adagio assai* bezain mugimendu kontrastaturik. Partitura horren goxotasunak, fintasunak eta liluragarritasunak haren maisu izandako Fauré gogorarazten digute, eta Ravelek honela moldatu zuen –Marguerite Longi aitortu zionez– “binakako konpasetan, klarinetea barnean dela Mozarten kintetoaren laguntzarekin”. Flautak, oboeak, klarineteak eta adar ingelesak arabesko finak partekatzen dituzte teklatuarekin, kontenplaziora bultzatzen gaituen xarma handiko benetako baretasun giro gogoangarrian. Hasierako erritmoen bultzada oldartsua ageri da berriro amaierako *Presto* labur, distiratsu eta aisean, pianoa eta orkestra, sagua eta katua balira bezala, sigi-saga jazarpenari ekinez.

namiento y ensoñación remiten a su maestro Fauré y que fue modelada por Ravel –como confesó a Marguerite Long– “de a dos en dos compases, con ayuda del quinteto con clarinete de Mozart”. Flauta, oboe, clarinete y corno inglés comparten con el teclado delicados arabescos en una atmósfera mágica, de serenidad contemplativa en verdad memorable. El vehemente impulso rítmico inicial reaparece en el breve *Presto* conclusivo, brillante y desenvuelto como si el piano y la orquesta, a modo del ratón y el gato, se lanzaran a una zigzagueante persecución.



## Sinfonía nº67 en fa mayor, Hob 1:67

**Joseph Haydn** / Rohrau, 31 de marzo de 1732 – Viena, 31 de mayo de 1809

Haydnen orkestrarako katalogo jori-joriaren barruan, 1775 eta 1784 urte bitartean konposatu izan zituen sinfoniak itzalean geratu dira nolabait, bai aurretik bai gerora, konpositorearen kronologian inguratzen dituzten horien eraginez: batetik, *Sturm und Drang* izenekoak, 1766 eta 1774 urte bitartean datatuak; bestetik, *Paris* izeneko sei sinfoniek osatutako saila, 1785-86 urte bitartean konposatutakoena. Egia da aipatutako hamarkada horretan Rohrauko musikariak sortutako sinfoniak ez zirela hainbeste izan eta hark izandako ibilbide jorian, beste garai batzuetan landutako gaitasun esperimentalik ez zutela, baina, urte haietan sortu izan zituen hemeretzi sinfonien artean ugariak dira, nola ez ba, bere partiturek beti ezaugarri izango duten aurkikuntza estrukturalak, sorpresa tinbrikoak eta erakargarritasun melodikoa.

1775-76 urte inguruan datatua eta lehen aldiz 1779an argitara emana, 67. *Sinfonia fa maio-*

Dentro del monumental catálogo orquestal haydniano, las sinfonías compuestas durante el período que va de 1775 a 1784 han quedado algo oscurecidas por las que, tanto antes como después, las rodean en su cronología: de un lado, las denominadas *Sturm und Drang*, fechadas entre 1766 y 1774; del otro, el grupo de las seis sinfonías *Paris*, compuestas durante 1785-86. Si bien es cierto que en la citada década la creación sinfónica del músico de Rohrau, enfascado en importantes proyectos operísticos, no alcanza ni la abundancia ni la capacidad de experimentación practicadas en otros períodos de su fecunda carrera, entre las diecinueve sinfonías gestadas en esos años abundan, como no podía ser menos, los hallazgos estructurales, las sorpresas tímbricas y la seducción melódica que siempre caracterizarían a su escritura.

Datada hacia 1775-76 y publicada por primera vez en 1779, *la Sinfonia nº 67 en fa mayor co-*



rréan obrak berretsi egin zuen –nahiko ezohiko partitura izan arren– entzuleak harritzeko autoreak zuen gaitasun agortezin hura, ordu-rako ezaugarri zuen itxura barearen azpian. Melodismo xarmagarria, Pleyelek bere *Sinfonia B. 140*an (1789) gogora ekarri zuena, beti arin doan diskurtsoa sendotzen duten asaldura tarteak eta bere garapen luzean sumatzen den kontrapuntu lan nabarmena dira hasierako *Presto*aren nortasun ikurrak. *Adagio* luzea mar-txa geldo bezain fina da, haize-instrumentuek etendako fanfarre txikiekin. Nabarmentzekoa da biolin kontrapuntua, garapen aldiaren hasierarekin bat etorritik eta, bereziki, “col legno del arco” gaiaren ustekabeko aurkezpena azke-neko konpasetan. *Menuetto*ak, oso laburra eta oso geldoa izanik, ohi ez bezala, originaltasun handiko *Trio*a hartzen du barnean, herrikoia eta bi biolinek jotakoa: lehenak “sopra una corda e con sordino” jotzen du eta bigarrenak “con sordino” eta laugarren hari-instrumentuarekin, tonu baxuagoan, cornamusa baten sonoritate iradokitzeko. Haydnek harrituta uzten gaitu berriro ezohiko amaierarekin, hiru mugimendukoarekin (*Allegro di molto-Adagio e cantabile-Allegro di molto*), Italiako opera baten obertura bati gehiago dagokionarekin.

rrobora –aún siendo una página relativamente poco frecuentada– esa inagotable capacidad de su autor para sorprender al oyente bajo la tranquila apariencia de lo ya conocido. El encantador melodismo, que Pleyel recordará en su *Sinfonia B. 140* de 1789, los sobresaltos de energía que aderezan un discurso siempre fluido y la elaboración contrapuntística de su amplio desarrollo constituyen las señas de identidad del *Presto* inicial. El extenso *Adagio* es una delicada marcha lenta entrecortada por pequeñas fanfarrias a cargo de los vientos. A destacar el contrapunto de los violines en canon al comienzo del desarrollo y, especialmente, la inesperada exposición del tema “col legno del arco” en los compases finales. El *Menuetto*, muy breve y desusadamente lento, encierra un originalísimo *Trío* de carácter popular a cargo de dos violines: el primero toca “sopra una corda e con sordino” y el segundo “con sordino” y con la cuarta cuerda en un tono más bajo para evocar la sonoridad de una cornamusa. Haydn sorprende de nuevo con un final poco convencional, de forma tripartita (*Allegro di molto-Adagio e cantabile-Allegro di molto*) más propia de una obertura operística italiana.

## El mandarín maravilloso, opus 19. Suite

**Bela Bartók** / Nagyszentmiklós, Imperio Austrohúngaro -actualmente Sânnicolau Mare, Rumania-, 25 de marzo de 1881- Nueva York, 26 de septiembre de 1945

*Mandarin miragarria* “pantomima ekitaldi batean” 1918 eta 1919 urte bitartean konpo-satutako eta 1924an berrikusitako obra da eta azkena ematen dio Bartoken trilogia esze-nikoari, *Bizarurdinen gaztelua* (1911) operak eta *Zurezko printzea* (1914-17) baletak osatu-takoari. 1917an argitara emana, testua Men-yhért Lengyel dramaturgo hungariarrari zor zaio eta biltzen duen gaiak garai asaldatu batean du bere oinarria. Musikari hungariarrak, itxuraz, Busoniren joera estetikoari jarraitu nahi izan zion –elezaharrei edo naturaz gaindiko argumentuei lotutako antzerki musikalaren aldekoa–.

*El mandarín maravilloso*, “pantomima en un acto” compuesta entre 1918 y 1919 y revisada en 1924, clausura la trilogía escénica de Bartók formada por la ópera *El castillo de Barbazul* (1911) y el ballet *El príncipe de madera* (1914-17). Publicado en 1917, el texto se debe al dramaturgo húngaro Menyhért Lengyel y su temática se inscribe en el contexto de una época turbulenta. El músico húngaro parece querer continuar la divisa estética de Busoni, partidario de un teatro musical ligado a argu-mentos legendarios o sobrenaturales.

Petersenek dioen bezala, sexu harremanen gaia, bere hiru obra eszenikoetan erabakigarria erabat, hemen oso modu berri batean landu izan zuen Bartokek. Konposizioak inspirazio-iturri bera du, hau da, "gizakion miseria eta zoritxarra", ezberdintasun handi bat dago, ordea: azkenean, gizona da hiltzen dena; ez, ordea, emakumea. Dekoratu zeharo espresionista batean kokatua, -gainezka egiten digun hiri modernoa, bere burua bahituta ikusten duen gizakia gizatasuna galdu duen gizartean, gerra oinarri duen apokalipsia- aditzera ematen digun argumentuak kaleko eszena lizun bat azaltzen digu. Burdel batean, hiru gaizkilek emakume gazte bat behartzen dute kaletik biktimak erakutzera, haiek lapurtzeko. Hari-instrumentuen motibo bortitzak eta zurzkoen mailu hotsek, hirietako klaxon soinu etengabeen modura, hiri giroko betiko zurrunbiloa gogora ekartzen digute. Klarineteak jotako uhin-mugimenduko gai baten bitartez, emakume gaztea inguruan dabiltzan gizonak limurtzen saiatzen da. Azkenean, Mandarin misteriotso bat agertuko da bat-batean, bikain jantzita, gai pentatoniko batek sinbolizatua, tronpek jotako *glissando*ekin eta sordinadun tronboiekin, eta haize- eta hari-instrumentuen eztanda karrankariekin. Neskak dantza lizun bati ematen dio hasiera, bals motel baten moduan, baina Mandarina zirkinik ere egin gabe geratzen da haren aurrean. Dantza -orkestraren testura gehitua- hareagotzen doa (pianoa, zelesta, triangulua, harpa). Mandarina neskaren atzetik dabil musika herrikoia gogora ekartzen digun gai fugatu bat entzuten dugun bitartean. Proxenetak gainera botako dira hura hil nahian: aurrena, xuxinekin itoz, gero saskaia sartuz, hurrena zintzilikatuz. Betiere alferrik, hark tinko jarraituko baitu neskari begira. Ordea, gaizkileek soka mozten dutenean eta neskak biktima besarkatzen duenean hasten dira haren zauriak odoletan: desioa itzali egiten da eta hil egiten da gizona.

1926ko azaroaren 27an Kolonian estreinatu ondoren, hiriko alkateak, Konrad Adenauerrek, debekatu egin zuen obra jendaurrean berriro interpretatzea, inmoraltzat hartu izanagatik. Bere partitura ezagutzera emateko, Bartokek kontzertu suite bat landu zuen orduan.

Como apunta Petersen, el tema de las relaciones sexuales, determinante en sus tres obras escénicas, es abordado aquí por Bartok de forma totalmente nueva. La composición aparece igualmente marcada por "la miseria y la desdicha de los hombres", pero existe una gran diferencia: al final, es el hombre quien muere, no la mujer. Enmarcado en un decorado abiertamente expresionista -la abrumadora ciudad moderna, el hombre convertido en rehén de una sociedad deshumanizada, el apocalíptico trasfondo bélico-, describe una sórdida escena callejera: en un lupanar, tres delincuentes obligan a una joven a que atraiga a sus víctimas desde la calle para robarles. El motivo febril de las cuerdas y el martilleo de las maderas, a modo de asistentes cláxones, evocan el incesante torbellino urbano. Por medio de un tema ondulante a cargo del clarinete la joven intenta seducir a los paseantes. Finalmente hace irrupción un misterioso Mandarin, suntuosamente ataviado, simbolizado por un tema pentatónico, con *glissandos* en trompetas y trombones con sordina, y estridentes estallidos de viento y cuerdas. La muchacha inicia una lasciva danza a modo de lánguido vals pero el Mandarin permanece impasible. La danza -y con ella la textura orquestal- se intensifica (piano, celesta, triángulo, arpa). El Mandarin persigue a la joven mientras suena un tema fugado de resonancias populares. Los proxenetas se lanzan sobre él para acabar con su vida: primero, ahogándolo con almohadones, después apuñalándolo, más tarde colgándolo. Siempre en vano pues sus ojos permanecen fijos en la muchacha. Solo cuando los bandidos cortan la cuerda y la joven abraza a su víctima comienzan a sangrar sus heridas: el deseo se apaga y el hombre muere.

Tras su estreno en Colonia, el 27 de noviembre de 1926, el alcalde de la ciudad, Konrad Adenauer, prohibió cualquier nueva representación por considerar la obra inmoral. Para dar a conocer su partitura Bartok elaboró entonces una suite de concierto que, eliminando la intervención del coro, reproduce sensiblemente los dos primeros tercios de la obra original, sacrificando las tentativas de asesinato del Mandarin e incorporando un enfebrecido clímax final.



## Musika argudio La música como pretexto

"Nire ustetan, tabu artistiko orok ikuspegi mugatua (bai denboran bai espazioan) uzten du agerian, eta halako arrazakeria sarritan.

Soy de la creencia de que todo tabú artístico evidencia una cortedad de vista (en tiempo y espacio) y a menudo un cierto racismo."

**E. Rautavaara**

"Kontzertu baten musika alaia eta distiratsua izan daiteke eta ez du zertan sakona izateko asmoa izan edo efektu dramatikoak bilatu.

La música de un concierto puede ser alegre y brillante y no es necesario que pretenda ser profunda o busque efectos dramáticos."

**M. Ravel**

"Enperadoreekin, erregeekin eta noble handiekin izan dut harremana; baina ez dut haien ondoan bizi nahi familiar-tean egongo bagina bezala, nahiago dut nire mailako jendea.

Me he relacionado con emperadores, reyes y grandes nobles; pero no deseo vivir junto a ellos en un plano de familiaridad, prefiero a la gente de mi clase."

**J. Haydn**

"*Mandarinen*, Bartokek gerrari dion gorrotoa erakusten du garrasika, gerra hori sorrarazi duen munduaren kontra asaldatzen da.

Bartok grita en *El mandarín* su odio a la guerra, se rebela contra el mundo que ha producido esta guerra."

**P. Citron**

## Gure iradokizun diskografikoa Nuestra sugerencia discográfica

### **E. Rautavaara: Cantus Arcticus**

Orquesta Filarmónica de Helsinki.  
Zuz./Dir.: Leif Segerstam. Ondine, 2004.

### **M. Ravel: Concierto para piano en sol mayor**

Joaquín Achúcarro, piano.  
Orquesta Sinfónica de Euskadi.  
Zuz./Dir.: Gilbert Varga. CLAVES, 2000.

### **J. Haydn: Sinfonía nº 67**

The Academy of Ancient Music.  
Zuz./Dir.: Christopher Hogwood. L'Oiseau-Lyre, 1994.

### **B. Bartok: El mandarín maravilloso (Suite)**

Orquesta Sinfónica de Londres.  
Zuz./Dir.: Georg Solti. EMI, 1963.



## Andrey Boreyko

zuzendaria / director

Andrey Boreyko Euskadiko Orkestraren Zuzendari Printzipal Gonbidatua da 2009/2010 denboraldiaz geroztik. Düsseldorf Symphoniker-en musika-zuzendari nagusia eta Stuttgart Radio Symphony Orchestra-ren (SWR) zuzendari gonbidatu printzipala da. Belgikako Orkestra Nazionalako zuzendari titular izango da 2012ko irailetik aurrera. Berner Symphonie-Orchester, Jenaer Philharmonie, Hamburger Symphoniker, Winnipeg Symphoniker Orchestra taldeen zuzendari titularra izan da eta Vancouver Symphony Orkestraren zuzendari printzipal gonbidatua. Halaber, Jenaer Philharmonie orkestrako ohorezko zuzendaria da. Andrey Boreykok nazioarte mailako orkestra gailenenak zuzendu ditu, esaterako European Berliner Philharmoniker, Münchner Philharmoniker, Royal Concertgebouw, Rotterdango Filarmonikoa, Orchestra Sinfonica Nazionale della RAI, Scala, Wiener Symphoniker, London Symphony Orchestra, Philharmonia Orchestra, BBC, Radio France, eta Amerikan New York eta Los Angeleseko Filarmonikoak.

Andrey Boreyko es Director Principal Invitado de la Orquesta de Euskadi desde la temporada 2009/2010. Es además director musical de la Düsseldorf Symphoniker y principal director invitado de la Stuttgart Radio Symphony Orchestra (SWR). A partir de septiembre de 2012 será director titular de la Orquesta Nacional de Bélgica. Ha sido director titular de la Berner Symphoniorchester, Jenaer Philharmonie, de la que es director honorario, Hamburger Symphoniker y de la Winnipeg Symphony Orchestra, así como director principal invitado de la Vancouver Symphony. Andrey Boreyko ha dirigido la mayoría de las orquestas más importantes del panorama internacional tanto en Europa como en América, como la Berliner Philharmoniker, Münchner Philharmoniker, Royal Concertgebouw, Filarmónica de Rotterdam, Orchestra Sinfonica Nazionale della RAI, Scala, Wiener Symphoniker, London Symphony Orchestra, Philharmonia Orchestra, BBC, Filarmónicas de Radio France, Nueva York y Los Angeles. Ha grabado para ECM, Hänssler, BIS, Teldec y Berlin Classics.



© FELIX BROEDE DG

pianoa  
piano

## Alice Sara Ott

Hamahiru urterekin, Alice Sara Ott alemaniar zein japoniar jatorria duen pianojotzailea Hamamatsuko Naziarteko Piano Lehiaketan "Etorkizun handieneko artista" izendatu zuten eta, bi urte geroago, sari garrantzitsuena irabazi zuen Silvio Bengalli Nazioarteko Piano Lehiaketan. Berriki Múnich-eko Orkestra Filarmonikoarekin, Londreseko, Vienako, Tokioko eta San Franciscoko Orkestra Sinfonikoekin eta Philharmonia orkestrarekin kontzertuak eskaini ditu. Suediar Irratiko Orkestrarekin eta Daniel Harding maisuarekin hainbat bira bat burutu du eta aurtengo abuztuan Proms-etan egin du debuta, Stockholmeko Errege Orkestra Filarmonikoa eta Sakari Oramorekin. 2012an Japonian eta Europan barrena bira bana egingo du. Ganbera musikari dagokionez, Heimbach, Davos eta Schwetzingen-eko jaialdietan aritu da. 2010ean Lucernako Jaialdian aritu zen estreinakoz eta 2012an Verbier-ekoan izango da. Deutsche Grammophon diskoetxerako grabatzen du bakarrik.

A sus trece años, la pianista germanojaponesa Alice Sara Ott fue proclamada "Artista más prometedora" del Concurso Internacional de Piano de Hamamatsu y, dos años más tarde, se hizo con el premio más importante del Concurso Internacional de Piano Silvio Bengalli. Ha ofrecido conciertos junto con la Filarmónica de Múnich, las Sinfónicas de Londres, Viena, Tokio y San Francisco y la Orquesta Philharmonia. Ha realizado giras con la Sinfónica de la Radio Sueca y Daniel Harding, debutando en los Proms con la Real Orquesta Filarmónica de Estocolmo y Sakari Oramo. En 2012 realizará sendas giras por Japón y Europa. Ha ofrecido conciertos de cámara en los festivales de Heimbach, Davos y Schwetzingen. Debutó en el Festival de Lucerna en 2010 y en 2012 lo hará en el de Verbier. Graba en exclusiva para Deutsche Grammophon.

[www.alice-sara-ott.com](http://www.alice-sara-ott.com)

**Hurrengo  
abonu  
kontzertua  
Próximo  
concierto  
de abono**

Urriak  
Octubre  
**20**

Ciclo A

Urriak  
Octubre  
**21**

Ciclo B

**Miramongo  
Matinéak  
Matinéas de  
Miramón**

Urriak  
Octubre  
**08**

Urriak  
Octubre  
**22**

Gure Orkestraren jarduerari buruzko xehetasun gehiago nahi izanez gero gurekin harremanetan jar zaitezke. Si desea conocer más detalles acerca de la nueva programación de nuestra Orquesta contacte con nosotros.

**943 01 32 32**

**www.euskadikoorkestra.es**

Miramón Pasealekua, 124  
20014 Donostia-San Sebastián



Paper birzikletua / papel reciclado



**Andrés Orozco-Estrada,**  
zuzendaria / director

**Gabriel Mesado,**

Biolontxelo (EOSeko kidea) / Violoncello (miembro OSE)

F. Mendelssohn: Sinfonía nº1

P.I. Tchaikovsky: Variaciones rococó

F. Mendelssohn: Sinfonía nº4

**Andrés Orozco-Estrada,**  
zuzendaria / director

**Juan Navarro,**

Klarinetea (EOSeko kidea) / Clarinete (miembro OSE)

**Sara Zufiaurre,**

Corno di basseto (EOSeko kidea / miembro OSE)

F. Mendelssohn:

Sinfonía nº5, "De la Reforma"

Dos estudios de concierto para clarinete, corno di basseto y orquesta

Sinfonía nº3, "Escocesa"

**Opus 64**

Beethovenen monografikoa

Monográfico Beethoven

**Erro hari-laukotea**

**J. Guridi & Aita Donostia**

Jaiotzaren 125. urteurrena

125 años del nacimiento

**Sarren  
salmenta**

Venta de  
entradas



CAJEROS SERVIKUTXA

**943 00 12 00**

**www.kutxa.net**

Taquilla KURSAAL leihatila

-EOSen emankizun egunetan / Días de actuación de la OSE: 12:00-14:00 / 18:00-20:00

-Kursaal Fundazioaren emankizun egunetan / Días de actuación de la Fundación Kursaal: 17:00-20:00

**MATINÉES:** Orkestraren Egoitza/Sede de la Orquesta: kontzertuaren egunean, aforo librerik balego, 10:30etatik aurrera / el día del concierto a partir de las 10:30h, si hubiera disponibilidad de aforo.

**www.euskadikoorkestra.es**



## Vivimos la música todo el año.



En Gipuzkoa sentimos y vivimos la música. Y en **kutxa** la impulsamos apoyando muchas de las actividades y eventos a lo largo del año. Porque colaborar en el desarrollo de manifestaciones culturales de todo tipo, también forma parte de nuestro **compromiso social**.

**social**  
**kutxa**  
parte de ti